

GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

Ikasturtea: 2014/2015

Tituluaren gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

Oinarrizko dimentsioa: Portaera etikoa

Ikasketa Planean adierazitakoa: Gizarte jarrera bat garatzea, hainbat gizabanakok eta gizarte taldek jasaten duten gizarte, lan, kultura eta genero bazterkeria eta opresioa ulertzeko eta horren aurrean informazioan oinarritutako sentsibilizazioa edukitzeko.



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

1. maila: Portaera etikoko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Generoari lotutako printzipio etikoak identifikatzea, ezagutzea eta aplikatzea.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Genero errealitateari buruzko ezagutzarekin bat datorren portaera du.	Errealitate hori argudiatzen du, bere printzipio eta iritzietan oinarrituta.
Generoari buruzko ikuspegi berriak onartzen ditu, horrek bereak zalantzan jartzea baldin badakar ere.	Genero gaiari buruz hitz egiten eta argudioak ematen ditu, hainbat ikuspegitatik, baita bere iritziarekin bat ez datozenetatik ere.
Bere ezagutzaz eta esperientziaz baliatzen da, bere ikuspegia gainerakoei helarazteko.	Bere gogoeten bidez, genero gaiari lotutako arau alderdien eztabaidaz jabetzen da.



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

Gizartearen eta Lan Harremanen Historia (gaitasuna koordinatzen duena) eta Sozietateen Zuzenbidea irakasgaiak gaitasun hau garatzen eta ebaluatzen dute.

4. ZEREGINAK

- Idazlanak egitea, bai taldean bai bakarka.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Gizartearen eta Lan Harremanen Historia (gaitasuna koordinatzen duena) eta Sozietateen Zuzenbidea irakasgaiak gaitasun hau jasotzen dute beren ebaluazio protokoloetan, eta ikasleak ebaluatzeke orduan erabiltzen dute.

Gizartearen eta Lan Harremanen Historia:

Gaitasun orokor honen ebaluazio globala egiten du, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna hainbat idazlanen bidez ebaluatzen da.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren heren bat da.



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Sozietateen Zuzenbidea:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez. Adierazle bakoitza heren bat haztatzen da, gaitasunaren osoarekiko.

Gaitasuna ebaluatzeko, aintzat hartzen dira eskoletan egindako lan praktikoak, eta genero ikuspegia (neska/mutilak) lan taldeetan txertatzea bultzatzen da.

Gaitasun honek irakasgaiaren nota osoaren % 1 hartzen du.

Irakasgai horiek gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboek argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

2. maila: Portaera etikoko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Balio etikoak identifikatzea, ezagutzea eta gizarte bazterkeriari aplikatzea.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Talde plural eta heterogeneo batean bizikidetzan moldatzeko gai da.	Autonomoa da bere sinesmen moraletan, bere buruaren jabe da, eta gaitasun kritikoa du. Hori dela eta, besteak errespetatzen eta baloratzen ditu, inoren mende geratu gabe.
Zentzu etikoa txertatzen du beste arlo batzuetan, eta haren inguruan orientatzen da.	Arazoak eta jarduerak zuhurtziaz planteatzen ditu, horien konplexutasun osoa kontuan hartuta, eta ikuspuntu kritikoa gehitzen du.
Elkarrizketetarako trebea da.	Pribatua (errespetatu eta tolerantzia) eta publikoa (erantzukizuna eta justizia) bereizten ditu.
Pentsatzen duenaren eta egiten duenaren arteko koherentziaz jokatzeko du.	Bere kabuz erabakitzen du egiteko modukotzat jotzen dituen ekintza guztien artean, ekintza horien ondorio guztiak kontuan hartuta.
Justizia onartzen du printzipio etiko nagusi eta oinarritzeko gisa.	Erantzukizunez eta errespetuz jokatu ohi du. Zintzoa da bere buruarekin eta gainerakoekin, eta onartzen ditu bere ekintzen erantzukizunak.



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harreman U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa irakasgaiak koordinatzen du gaitasuna.

Gaitasuna kalifikatzen duten beste irakasgai batzuk: ez dago

Ebaluazio sisteman kalifikatu ez arren, gaitasuna garatzeko lagungarriak diren beste irakasgai batzuk: Gizarte Ikerketarako Teknika Kuantitatiboak, Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak, Enpresen Kudeaketa I, eta Sindikatu Zuzenbidea.

4. ZEREGINAK

5. EBALUAZIO SISTEMA

Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa (gaitasuna koordinatzen duena) irakasgaiak gaitasun hau bere ebaluazio protokoloan jasotzen du, eta ikasleak ebaluatzeko orduan erabiltzen du.

Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa irakasgaiak koordinatzen du gaitasuna.

1. Adierazle guztiak ebaluatzen ditu.
2. Gaitasunaren ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen da.
3. Gaitasuna ebaluatzen duten zereginak:



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

- Tamaina ertaineko taldeen dinamiketan, eztabaidetan, eztabaida gidatuetan, solasaldietan eta mahai inguruetan parte hartzea.
- Mintegietan, eztabaida taldeetan, ideia jasetan eta *role playing*etan parte hartzea.
- Talde handietako dinamiketan, koordinatzaile bidezko foroetan eta eztabaidetan parte hartzea.
- Tamaina ertaineko taldeen dinamiketan, eztabaidetan, eztabaida gidatuetan, solasaldietan eta mahai inguruetan parte hartzea.

4. EBALUAZIOA: Portaerari behatzea eta hura aztertzea, hainbat teknika erabilita.

- Gaitasunaren ebaluazioan, adierazle bakoitzaren pisua % 20 da.
- Irakasgaiaren notan, gaitasunari emandako pisu globala % 25 da.

Gizarte Ikerketarako Teknika Kuantitatiboak, Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak, Enpresen Kudeaketa I eta Sindikatu Zuzenbidea irakasgaiak nahita diseinatuta daude gaitasuna garatzeko, edo aukera ematen dute gaitasun hori praktikan jartzeko.

Ikasleek Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa irakasgaia gainditzeak adierazten du gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

3. maila: Portaera etikoko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Justizia printzipioa identifikatzea, ezagutzea eta bizi baldintzak hobetzeko aplikatzea.



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Zeregin batez bizikidetzari lotutako premiaren bat asetzen du (ikasgelan, lan taldean, bizitzan, kolektibitatean)	Berariaz aitortzen du beste pertsonen eskubidea pentsatzeko eta modu autonomoan eta pertsonalean baloratzeko, pentsatzen dutena adierazteko, eta horrekin bat etorrita askatasunez jarduteko.
Zentzu etikoa eta justizia sentimendua txertatzen ditu.	Printzipio etikoak zuzen eta egoki aplikatzen ditu egoera zehatzetan.
Badaki zer eragina duten politika sozioekonomikoek gizarte bazterkeria eta opresioa jasaten duten taldeengan.	Badaki bereizten politikan adierazitako helburuak eta politikaren benetako eraginak.

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Gizarte eta Lan Politikak

4. ZEREGINAK

Ahozko lanak aurkezten dira, eta gero ikasleak gainerako ikasleekin eztabaidatzen du, haien argudioak onartuz edo ezeztatuz.



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gizarte eta ekonomia egoerari lotutako testu iruzkinak. Horrelakoetan, ikasleek desberdintasuna eta gizarte bazterkeria egoerak arintzen saiatzen diren politikei buruzko iritziak azaltzen eta argudiatzen dituzte.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Lan eta Gizarte Politikak irakasgaiak gaitasunaren ebaluazio sistema aplikatzen du. Haren ebaluazio protokoloan jasota dago, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen da.

Gaitasun hau ebaluatzeko, aintzat hartzen dira deskribatutako adierazle guztiak, eta ikasturtearen hasieran moodlen argitaratutako matrize bat erabiltzen da. Lehenengo bi adierazleei % 25eko pisua ematen zaie, eta hirugarrenari, berriz, % 50ekoa.

Gaitasuna baloratzeko, talde lanak egin, eta aurkezten dira, eta testuei buruzko iruzkin idatziak egiten dira, bakarka. Irakasgaiaren notan, gaitasunari emandako pisu globala % 5 da.

Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

4. maila: Portaera etikoko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Justizia printzipioa modu autonomoan identifikatzea, ezagutzea eta bizi baldintzak hobetzeko aplikatzea.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Balio etikoak txertatzen ditu, ikasgelako jardueretan. Portaera sentikorra du, pertsona batek jasan dezakeen bidegabekeria, pobrezia eta bazterkeria egoeren aurrean.	Taldeko gainerako kideak errespetatzen eta positiboki baloratzen ditu, eta begirunez tratatzen ditu.
Egoerak bideratzen ditu, justizia eta ekitate balioekin bat etorrira.	Trebea da gatazkak konpontzen, eta kideen arteko desberdintasunak errespetatzen ditu, planteatutako arazoak konpontzeko irtenbideak proposatuz eta irizpide etikoak emanez.
	Tolerantzia eta justizia irizpideak aplikatzen ditu bere zereginetan, eta trebea da sortutako arazoak bideratzen.



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Ikasgelako Praktiak II

4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Askotariko egoera gatazkatsuei buruzko ariketa praktikoak ebatzi beha dira. Egoera horiek bideratzeko, laneko araudia, doktrina eta jurisprudenzia erabili, eta etika eta justizia irizpideak aplikatuko dira.

Ahozko aurkezpenak egiten dira. Horrelakoetan, ikasleak ebatzi beharreko kasuaren garapena eta soluzioa azaltzen ditu, eta gero gainerako kideen iritzia entzuten du, haiek emandako argudioak onartuz edo ezeztatuz.

Kasu errealei eta zehatzei aplikatutako justiziarri eta etikari buruzko eztabaidak.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Ikasgelako Praktiak II irakasgaiak gaitasuna aurreikusten du bere ebaluazio protokoloan, eta ikasleak ebaluatzeke erabiltzen du.

Gaitasunaren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeke, ikasleek planteatzen zaizkien ariketa praktikoak egin, azaldu eta defendatzen dituzte, eta gatazka egoera errealei buruzko eztabaidetan parte hartzen dute, non ebazpenean dauden irizpide kritikoak aztertzen dituzten, beren ondorioak adierazita. Horrez gain, kasu praktiko baten gaineko azterketa egiten dute, eta ikasleak soluzioak eman behar ditu, justizia eta ekitate balioak ere aintzat hartuta.



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren nota osoaren % 20 da. Notaren gainerakoa gaiaren berezko zereginiei dagokie.

Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

Gradu Amaierako Lana 4. maila: Portaera etikoko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

1. MENDERATZE MAILA

Justizia printzipioa identifikatzea, ezagutzea eta bizi baldintzak hobetzeko aplikatzea.

2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Lankidetzaren lan batez bizikidetzari lotutako premiaren bat asetzen du (ikasgelan, lan taldean, bizitzan, kolektibitatean).	Berariaz aitortzen du beste pertsonen eskubidea pentsatzeko eta modu autonomoan eta pertsonalean baloratzeko, pentsatzen dutena adierazteko, eta horrekin bat etorrita askatasunez jarduteko.
Zentzu etikoa eta justizia sentimendua txertatzen ditu.	Printzipio moralak egoera zehatzetan egoki aplikatzen eta justifikatzen ditu.
Elkarrizketaren bidez bilatzen ditu justizia eta ulermena.	Bere egiten ditu ikuspegi desberdinak, era esplizitu eta zentzudunean, eta pribatua (errespetatu eta tolerantzia) eta publikoa (erantzukizuna eta justizia) bereizten ditu.
Pentsatzen duenaren eta egiten duenaren arteko koherentziak jokatzen ditu.	Ezagutzen ditu kontzientzia gatazkak, eta oinarritzko gaitasunak ditu balizko irtenbide bat iradokitzeke, bere ekintzen inplikazio guztiak aintzat hartuta.
Badaki zer eragina duten politika sozioekonomikoek gizarte bazterkeria eta opresioa jasaten duten taldeengan.	Badaki bereizten politikan adierazitako helburuak eta politikaren benetako eraginak.



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

GGaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

GRALa

4. ZEREGINAK

Elkarrizketak egitea tutorearekin, txostena idazteko jarraipen prozesuan, eta aztergairako egokia den jarrera etikoa erakustea.

GRALa idaztean, aztergairako egokia den konpromiso etikoa edukian islatzea.

GRALa epaimahaiaren aurrean azaltzea eta hark eginiko galderei erantzutea, aztergaiarekin bat datorren jarrera etikoa adieraziz.

5. EBALUAZIO SISTEMA

Elementu hauek identifikatu behar dira:

- a. Adierazle guztiak ebaluatzea.
- b. Gaitasunaren ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran argitaratzea.
- c. Gaitasuna ebaluatzeke lana(k) (labur).
- d. GRALaren notan, gaitasunari emandako pisu globala.

GRAL prozesuaren balorazio txantiloia, tutoreak beteta.

GRALaren amaierako memoriaren ebaluazioa, tutoreak eta epaimahaiak egina.

Epaimahaiaren aurrean egindako GRALaren defentsa eta azalpena baloratzea.